

Erlijio katolikoa

Iturburu saila

5

LEHEN
HEZKUNTZA

Lehen Hezkuntzako 5. mailarako **Erlijio katolikoa** liburua Zubia Editoriala, S. L.-ren eta Santillana Educación, S. L.-ren Hezkuntza Argitalpenetarako Sailean **Joseba Santxo Uriarteren** eta **Teresa Grence Ruizen** zuzendaritzapean sortu, taxutu eta gauzaturiko talde-lana da.

PROIEKTU DIDAKTIKOA

José Luis Alzu Goñi

TESTUA

Vicente Camacho Díaz

Fernando Cordero Morales

Marta Huelva Olías

Carmen Pellicer Ibarra

Francisco Javier Salguero Gómez

Martín Varela Dávila

IRUDIAK

Cristina Losantos Sistach (unitateak)

Esperanza Martínez Molina (mapak)

Avi (irakurgaiak)

EDIZOA

Joseba Santxo Uriarte

Ainhoa Basterretxea Llona

Carmen Ríos Collantes de Terán

PROIEKTUAREN ZUZENDARITZA

Joseba Santxo Uriarte

Maite López-Sáez Rodríguez-Piñero

Edukien mapa

UNITATEA	HASIERA	BIBLIAKO KONTAKIZUNA	INFORMAZIOA
1 Bibliaren lantegia 6	<ul style="list-style-type: none"> • Itun Zaharra ikertzen. • Itun Berria ikertzen. • Biblia erabiltzen. 		
2 Ongia egiten dugu 10	Eguneroko lan eta nekeak.	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Kain eta Abel.</i> • <i>Seme galduaren parabola.</i> 	Onginahia.
3 Jainkoaren aginduak 20	Hauteskundeguna.	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Jainkoaren eta bere herriaren arteko ituna.</i> • <i>Agindu nagusia.</i> 	Jainkoa eta lagun hurkoa maitatzea.
4 Jesus aurkitzea 30	Mieltxoren bankua.	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Zakeo.</i> • <i>Saulo Paulo bihurtu zenekoa.</i> 	Jesusen bidera irtetea.
5 Jainkoaren erreinuaren zeinuak 40	Ebolaren aurkako borroka.	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Jesusek elbarria sendatu.</i> • <i>Nainen alargunaren semea.</i> 	Erreinuaren zeinuak.
6 Jesus piztu egin da 50	Esperientzia gogorra.	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Emausko ikasleak.</i> • <i>Petriren eta hamaiken testigantza.</i> 	Jesusek itxaropena dakarkigu.
7 Eliza solidarioa 60	Pailazo boluntarioak.	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Ogien eta arrainen miraria.</i> • <i>Pauloren gutuna.</i> 	Eliza munduan.
8 Jairik jai Jesusekin 70	Urtebetetze-festa.	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Juduen Pazko-eguna.</i> • <i>Pazko-afaria.</i> 	Sakramentuak ospatzen.
Otoitzak 82			
Bibliako irakurgaiak 84			

Iturburu proiektua
Erljio Katolikoa
arloko curriculum
berriari jarraituz sortu da
(Ebazpena, 2015eko
otsailaren 11koa), 2015eko
otsailaren 24ko BOEn
argitaratua.

ERREPORTAJEA	MUNDU HOBE BATERANTZ
Ongiaren eta gaizkiaren irudiak.	<ul style="list-style-type: none"> • Zintzotasuna balioestea. • Norberaren jokabideaz gogoeta egitea.
Jainkoaren maitasuna ospatzen dugu.	<ul style="list-style-type: none"> • Maitasunak bultzatuta jokatzea. • Aginduez gogoeta egitea, bizitzan orientazio-bide diren aldetik.
Jesus miresten dugu.	<ul style="list-style-type: none"> • Aurrera egin dutenen testigantzen berri jakitea. • Jainkoarenganako maitasunaren berri ematea.
Kristoren aztarnak.	<ul style="list-style-type: none"> • Kristau-bizimoduaren eredu bat deskubritzea. • Proiektu solidarioetan parte hartzeko interesa izatea.
Gure pozaren berri ematen dugu.	<ul style="list-style-type: none"> • Bidegabekeriei aurre egitea. • Zailtasunei umore onez aurre egitea.
Elkartzea gustatzen zaigu.	<ul style="list-style-type: none"> • Ebanjelioa zabaltzea. • Elizako bizitzan parte hartzea.
Fedean elkarturik.	<ul style="list-style-type: none"> • Esker onezko testigantza baten berri jakitea. • Esker ona adieraztea.

Oinarrizko gaitasunak

Liburuan zehar, **HEZIBERRI**ren araberako oinarrizko gaitasunen ikurrak ikusiko dituzu zenbait jardueraren ondoan. Ikur horiek kasu bakoitzean zer gaitasun lantzen den adierazten digute.

Arloko gaitasunak

-  Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako gaitasuna
-  Matematikarako gaitasuna
-  Zientziarako gaitasuna
-  Teknologiarako gaitasuna
-  Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna
-  Arterako gaitasuna
-  Mugimendurako gaitasuna

Zehar-gaitasunak

-  Hitzez, hitzik gabe eta era digitalean komunikatzeko gaitasuna
-  Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna
-  Elkarbizitzarako gaitasuna
-  Ekimenerako eta ekintzaile-sena garatzeko gaitasuna
-  Izaten ikasteko gaitasuna

Ongi etorri


Ikasturte berriari ekitera goaz!

Lehen Hezkuntza hasi zenutenez geroztik, Jainkoari eta haren seme Jesusi buruzko gauza ugari ikasi dituzue. Bataiatu guztiok familia handi bat osatzen dugula eta Jesusen irakaspenak zabaltze aldera denok elkarrekin lanean dihardugula ere deskubritu duzue.

Orain, hazi egin zarete, eta bizitzari buruzko galderak egiten dizkiozue zeuen buruari; erantzun zaileko galderak, inondik ere. Ikasturte honetan, galdera horietako batzuei erantzuteko, erlijio katolikoaren sinesmenak aztertuko ditugu.

Bide horretan, zuek bezala bosgarren maila hasi berri duten neska-butil batzuk izango dituzue laguntzaile. Unitate bakoitzaren hasieran, albiste, argazki eta dokumentu ugariren bidez, interes handiko gaiak aurkeztuko dizkizute, haiei buruz eztabaida dezazuen.

Ezagutu nahi al dituzue zuen adiskide berriak?



Ni Leire naiz,
eta hau Sultan da,
nire katua.



Leire taldeko alaiena da, bai eta jakin-min eta sormen handienekoa ere. Oso irudimen handia duenez, ikaragarri gustatzen zaizkio zientzia fikziozko eta abenturazko liburuak. Leirek ezin izan du sekula oinez ibili, baina hori ez da oztopo bere katua zaintzeko, ez eta lagunekin gozatzeko ere; milaka jolas eta abentura asmatzen dituzte elkarrekin.

Ni Ekaitz naiz.



Ekaitz oso mutil jakintsua eta arduratsua da, eta isil samarra. Oso ona da mahai-jolasetan, eta beti jartzen da atezain-postuan futboleko jokatzeko dutenean. Irakurtzea ere gustuko du, bai eta egunean zehar gertatzen zaizkionak egunerokoan idaztea ere.

Eta ni, Nekane.
Nahi al duzu gure lagun
taldean sartu?



Nekane zazpiki samarra da, eta asko gustatzen zaio marraztea eta kirola egitea. Oso alaiena da eta denek egiten dute barre berarekin, batez ere bere ahizpa txikiaren bihurrikeriez eta amonak kontatzen dizkion istorioez hitz egiten duenean.

1

LEHEN UNITATEA

Bibliaren lantegia

Biblia

Biblia da kristauontzat libururik garrantzitsuena, haren bitartez Jainkoaren egia agertzen baitzaigu. Horrez gain, Biblian Jainkoaren eta gainerakoen zerbitzura bizitzeko jarraibideak eskaintzen zaizkigu, betiko zorientasuna lortze aldera.

Biblia hainbat liburuk osatzen dute, eta liburu horiek bi bildumatan daude antolatuta: Itun Zaharra eta Itun Berria. Bibliako testuak Jainkoak inspiratu zituen. Hori dela eta, Biblia Jainkoaren hitza dela esan ohi dugu.



Itun Zaharra ikertzen

Itun Zaharreko liburuak



Itun Zaharra 46 liburuk osatzen dute, eta haietan, Israelgo herriaren historia eta Mesiasen etorreraren iragarpena kontatzen dira. Lehen liburua **Hasiera** da.

Itun Zaharreko liburuak hebreeraz eta arameraz idatzi zituzten. Antzinakoenak Kristo jaio baino 1.300 bat urte lehenagokoak dira. Liburu haiek idazteko, **ahozko tradizioan** oinarritu ziren egileak.

Itun Zaharraren laburdura IZ da.

Itun Zaharreko literatura-generoak

Itun Zaharreko liburuak hainbat literatura-generotan daude idatzita:

- **Gogoeta-liburuak.** Hobeto bizitzeko gomendioak ematen dituzte. Horren adibide da *Esaera Zaharrak* liburua.
- **Legeen liburuak.** Sinestunek jarraitu beharreko arauak biltzen dituzte. Horietako bat da *Zenbakiak* liburua.
- **Historia-liburuak.** Israelen historiari eta Israelek Jainkoarekin zuen harremanari buruzkoak, hala nola *Irteera* eta *Kronikak*.
- **Profezia-liburuak.** Gaizkia salatu eta Mesiasen etorrera iragartzen dute. Horien adibide da Isaias profetaren liburua.
- **Poesia-liburuak.** Jainkoaz hitz egiten dute hizkera poetikoa erabiliz. Adibidez, *Kantarik ederrena* eta *Salmoak*.



Itun Berria ikertzen


Itun Berriko liburuak

Itun Berria 27 liburuz osatuta dago; Jesu Kristoren lekukotasun historikoa ematen digute, eta salbamena lortzeko bidea erakusten:

- **Lau ebanjelioak.** Jesusen bizitza eta irakaspenak biltzen dituzte.
- **Apostoluen eginak.** Lehen kristauen bizimodua kontatzen dute.
- **Epistolak.** Apostoluek zenbait kristau-elkartei bidalitako gutunak dira.
- **Apokalipsia.**

Itun Berriko testuak Jesus hil ondoren idatzi zituzten, piztu eta handik gutxira.

Itun Berriaren laburdura IB da.



Lau ebanjelioak

Ebanjelioak Itun Berriko liburu garrantzitsuenak dira. Egileek Jesusi buruz ahoz aho transmititutako kontakizunak eta beren esperientzia hartu zituzten oinarrian, horiek idazteko.



Ebanjeliorik zaharrena **San Markorena** da, K.o. 50. urtean idatzia, gutxi gorabehera.

San Lukasek eta **San Mateok** kontuan hartu zuten hura beren ebanjelioak idaztean, eta horregatik dira hain antzekoak hiru testu horiek. **San Joanen** ebanjelioa, berriz, beste molde batekoa da.


Itun Berriko literatura-generoak

Itun Berrian ere, Itun Zaharrean bezala, hainbat generotako testuak daude. Hala ere, Itun Zaharrean baino genero gutxiago ditugu Itun Berrian. Hauek dira:

- **Kontakizun historikoak.** Jesusen bizitzari eta ekintzei buruzkoak dira, bai eta lehen kristau-elkarteei buruzkoak ere.
- **Testu didaktikoak,** hala nola Jesusek esandako parabolak.
- **Gutunak edo epistolak;** esaterako, San Paulorena.



Sartu webgune honetan, eta Bibliarekin lotutako jolasak aurkituko dituzu.



Biblia erabiltzen

Biblia ezinbesteko liburua da kristauen bizitzan.



Biblia erabiltzeko, ezinbestekoa da nola antolatuta dagoen...



... eta testuak nola interpretatu behar diren jakitea.

Biblia aztertzea

Biblia erabiltzen hasi aurretik, gainera irakurtzea komeni da, harekin trebatzeko.

1 Hartu zure Biblia eta erreparatu kontu hauei: ★

- **Liburuaren itxura:** Lodia ala mehea da? Nolakoa da azala? Letra handia ala txikia du? Ba al du irudirik?
- **Liburuaren antolaketa:** Zer zati dagokio Itun Zaharrari? Eta Itun Berriari? Idatzi zer orrialdetan hasten eta amaitzen den liburu bakoitza.
- **Argitalpena:** Zer informazio ageri da orrialde bakoitzaren goiko aldean? Nola dago antolatuta testua, zutabe batean ala bi zutabetan? Testua ataletan banatuta al dago? Atalek ba al dute izenbururik? Zer esan nahi dute testuen aurrean ageri diren zenbakiak?



Bibliako liburu bat aurkitzea



Biblia 73 liburuz dago osatuta. Biblian liburu bat aurkitu ahal izateko, Itun Zaharrekoa ala Itun Berrikoa den jakin behar duzu, eta dagokionaren baitan zer lekutan dagoen. Zure Bibliaren aurkibidea lagungarri izan dakizuke.

- 2 **Kopiatu Itun Zaharreko hamar libururen izenak, zure Biblian ageri diren hurrenkeran.**
- 3 **Bilatu Biblian apostoluen gutunak, eta adierazi nork idatzi zuen gutun bakoitza.**

Bibliako aipu bat aurkitzea

Bibliako liburu guztiak kapitulutuan eta txataletan antolatuta daude. Horri esker, aipu bat izanez gero, erraza da hari dagokion testua bilatzea.

laburdura — Jn 15
 kapitulua — 15¹² «Hau da nire agindua: maita dezazuela
 txatala — elkar nik maite izan zaituztedan bezala».



4 Bilatu aipu hauek eta azaldu horietako bakoitzean zer aipatzen den. ★

Mt 18, 21-35

Has 6, 13-22

1 Kor 1, 10-13

Bibliako testu bat iruzkintzea

Bibliako testuen bitartez, Jainkoa nor den eta haren nahia betetzeko nola bizi behar dugun ikas dezakegu. Horretarako, beharrezkoa da testuak ulertzea, bertan zabaltzen den mezua gure bizitzan nola aplikatu dezakegun azaltzea...


5 Bilatu Biblian Lk 18, 18-30 pasartea eta erantzun.

- Zer testu mota da?
- Zein dira testuko protagonistak?
- Zer irakasten digu?
- Aplikatu al dezakezu irakaspen hori zure bizitzan? Azaldu.



ERAKUTSI ZURE GAITASUNA

Bibliaren diptiko bat ★



Egin ereduak bezalako diptiko bat, eta idatzi liburu hauen izena dagokien lekuan.

- | | | |
|----------------|-------------------|---------------------|
| ✓ Mateo | ✓ Salmoak | ✓ Epailak |
| ✓ Irteera | ✓ Esaera Zaharrak | ✓ Kronikak |
| ✓ Korintoarrei | ✓ Apokalipsia | ✓ Ezekiel |
| ✓ Isaias | ✓ Hasiera | ✓ Apostoluen Eginak |

Zure Biblian liburu bakoitza zer ordenatan ageri den, hurrenkera horretantxe idatzi behar dituzu liburuen izenak.